

Abenduan hainbat irakasle eta preso ohi elkartu ziren Durangoko Udal Euskaltegian, 2017tik isilpean egin duten lana erakusteko eta Lakua-ko Gobernuari presoek euskara ikasteko duten eskubidea berma dezala eskatzeko. Laster aurkeztuko dute eskakizun hori Gasteizko Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordean. Irakasle horietako bat, Leire Vitoria, Asturiasen dago gaur, larunbata, tutoretza egiten. Hara baino lehen, GAUR8rekin mintzatu da beren eskakizunaz eta presoen ikas prozesuaz.

Zenbat ikasle daude Euskal Herriko karteletan?

Hogeita hamalau, B1, B2, C1 eta C2 mailetan. Horietatik hemezortzi Euskal Herriko karteletan, denak EAEn. Beste guztiak kanpoan. Eta gure asmoa, hain zuzen, sakabanatuta egoteak eragiten dituen kalteetako bat arintzea da, ez bakarrik tituluak lortzen laguntzea, nola bait distantzia laburtzea ere bai, eta euskararen inguruan harremanak sendotzea. Esan liteke titulua aitzakia izan zela, baina jende askori kalera irten da ondo etorri zaiola ere egia da, titulitisak jota dagoen mundu honetan.

Batzuek kartzelan ikasi dute euskara; bazekitenek, berriz, goiko mailetara jotzen dute.

Bai, nire ikaslea, esate baterako, Lizartzakoa da. Euskara du ama hizkuntza eta ikasi nahi du ez tituluagatik, edo ez horregatik bakarrik, baizik eta bere hizkuntza hobeto ezagutu eta erabiltzeko.

Durangon esan zenutenez, emaitzak oso onak dira, bai



LEIRE VITORIA

EUSKARA IRAKASLEA

Tutoretza lanetara Asturiasera abiatu baino lehen, Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztuko duten eskakizunaz eta euskara-ikasle presoen ikas prozesuaz mintzatu da irakasle gasteiztarra.

Xabier Izaga Gonzalez

«Gure helburua presoen irakasle talde bezala desagertzea da»

ikasleak bai zuok harro egote-ko modukoak, ezta?

Aurkeztu direnen %90ek gainditu dituzte ikasketak. Kaleko datuen aldean, ikaragarria da. Kanean, esate baterako, C1eko azterketara aurkeztu direnen %30era ez da iristen.

Lan boluntarioa da, ohiko lanarekin uztartu behar duzuen.

Bai, zure bizitza moldatu egin behar duzu. Baina kontuan izan egiten duguna ez dagoela gure menpe. Kartzela bakoitza mundu bat da, harresiak poto-loak dira, eta ez bakarrik fisikoak. Orain hurrengoan nire ikasleak esan zidan batzuetan pentsatzen duela: «Honek hartu duen lan guztia ikusita, nola ez dut egingo nik?». Nik esaten diot berak bere erritmoan egin behar duela, hau ez dela maratoi bat, helburua ikastea dela.

HABErekiko harremanean egiten duzue lan hori.

HABErekiko harremanak atseginak izan dira beti. Badago talde motor bat HABEko arduradunekin elkartzen dena, eta beti esan dute HABEko ardura-dunak beti interesatuta hartu dituztela, giro atseginean. Baina bileretatik harago ez da pasatzen.

Azken bileran, uda ostean, egiten ari garen lana aitortu zigun HABEk. Emaitzak ikaragarriak zirela, oso onak, baita gainditzen dutenen kopuruari dagokionez ere. Harrituta agertu ziren zer-nolako lana egiten ari garen gu eta egiten ari diren ikasle presoak, eta guretzat aitortza hori oso baliagarria da, baina gure helburua ofizialtasuna da, HABEk onartzea ikasle hauek azterketa ofizialak egiten dituztela, gu HABEko irakasle ofizialak garela eta gutako asko HABEko aztertzaile ofizialak garela. Hori onartzen

bada, ikasle presoek HABEko ikasle ofizialak izan behar dute. Baina gauzak oso poliki doaz. Ikasleak orain deialdi irekietara aurkeztu dira, eta hori ez da onargarria.

Baina zuek bazarete HABEko euskaltegiako irakasleak.

Bagara, bai, guztiok. Zu HABEko irakaslea izan gabe, beharbada, eskolak ematen dizkiozu zeure lagun preso bati, baina hau ez da kasua, denok gara HABEko irakasleak, irakasle ofizialak guztiok, HABEko euskaltegi homologatuetan gaudelako.

Eta nork ordaintzen ditu ematen dituzuen eskola horiek?

Inork ez. Hau boluntarioa da.

Irakasleok ez duzue ezer kobratzen eta presoek ere ez zaie laguntzarik ematen, esate baterako, materialerako?

Ez, ez. Hori bai, azterketarako matrikula egitetik salbuetsita daude. Presoentzat doakoa da.

Zuk tutoretza egiten duzunean, senide edo lagun batek bisita hori galtzen du.

Hori da, eta, gure ustez, onartezina da. Ados jartzen zara ikasle presoarekin eta familiarekin. Esan dizudan bezala, kartzela bakoitza mundu bat da, eta ikasle presoak erabakitzen du nola egin. Guk badakigu zerrenda horretan sartzen baldin bagara, egokia eta onuragarria dela ikaslearentzat, baina baita lagun baten edo senide baten lekua betetzea latza dela ere. Eta gauza bera gertatzen da telefono deiekin. Zerrenda bat dago deitzeko; orduan, tutore moduan niri deitzen baldin badi, dei bat galtzen dute senideek edo lagunek.

Ni hurrengo zerrendan sartuta nago eta joan egingo naiz horrela eskatu duelako nire



ikasleak, baina esku hutsik joango naiz mintzategira, ezin dut ezer sartu, eta berak ere ezin du materialik atera. Orduan, zalantza guztiak, aholkuak, zuzenketak... gogoan daukaguna egingo dugu.

Hain zuzen, zuek irakasteko eta presoek ikasteko baldintzen gainean galdetu behar nuzun.

Kasu bat kontatuko dizut. 2020ko bigarren deialdian, udazkenean, Picassenteko kartzelan, ez dakit gaizki-ulerturen bat edo zer gertatu zen HABEren eta Espetxe Erakundearen artean. Nire ikasle bati goizeko zortzietan funtzionarioek esan zioten mintzategi bat erreserbatu behar zuela arratsalde hartarako euskara azterketa bat egiteko. Berehala hasi ginen mugitzen, eta azkenean, ikasle horrek ez zuen egun horretan egin behar izan, baizik eta hurrengo egunean. Kaleko edozein ikaslek eskubidea du bere ikasketak antolatzeke, planifikatzeko eta bere burua prestatzeko, eta eskubide hori aitortu behar zaie gure ikasle presoiei ere. Beste kasu batzuetan ahoz aho komunikatzen zaie dena, familiaren bidez.

Azterketak egiteko baldintzak ere penagarriak dira, mintzategietan. Kanean daudenek bi edo hiru egunetan egiten dituzte, eta hauek egun berean, dena jarraian. Kanean lehenengo irakurmena eta entzumena egiten dira; behin gaindituta, idazmena, eta hori gaindituta, mintzamina. Idazmena ez badu gainditzen, deialdi horretan ez du mintzamina egingo. Eta gure ikasleek dena jarraian egiten dute, gutxienez lau orduan eta, esate baterako, idazmena gainditu gabe ere mintzamina egin behar dute. Baikorrek izanda, pentsatu behar dugu

hurrengorako entrenamendua dela. Baina ez da hori.

Eskolak emateko zailtasunak ez dira txikiagoak izango.

Materiala posta arruntaren bidez edo paketeen bidez sartzen dugu. Nire ikaslea Asturiasen da, eta postaz bidaltzen diodanak asteak ematen ditu bidean. Orduan, kontzeptuak argitzeke-eta, paketea dagoenean sartzen dut materiala. Liburuak lege gordailua badute soilik sartzen dira, eta fotokopiak sartzen badira, ariketak-edo, lekuaren eta beste faktore batzuen arabera sartuko dira edo ez. Kontua da idazlan batekin hilabete eta erditik gora eman dezakegula. Horrelakoak dira epeak. Paketea hilabeteen bi al-

«HABEk esan zigun emaitzak ikaragarriak zirela, oso onak. Bai presoak bai gu egiten ari garen lana aitortzea oso baliagarria da guretzat, baina gure helburua ofizialtasuna da»

diz baldin badago, lehenengo asteburuan sartzen da, hurrengoan baliteke paketea ateratzeko aukera izatea edo ez; baldin badago, nik bidalitako ariketa guztiak egingo ditu agian. Agian, aprobetxatzeko gauza asko sartzen ditugulako, eta batzuetan ez dute denborarik izaten. Nik, egia esan, ez dut arazo handirik izan, baina izaten dira. Sartzen ditudan lanak gero berak atera behar ditu, nik zuzendu eta berririo sartzen ditut...

Beste alde batetik, azterketaren atal bat entzumena da, baina ez daukate prestatzeko aukerarik, ezin baitute ezer entzun formatu digitalean. 'Mintza' kideren batekin egin behar dute, baina ez da gauza bera, irakaslerik gabe eta be-

har duten erregistroa erabili gabe... Dena dira zailtasunak.

Eta pandemian?

Konfinamenduan imajinatu zer-nolako baldintzak genituen, itxiera perimetralak zeudela. Senideek paketea jasotzen zuten, ateratzen zuena eskaneatzen zuten, e-mailez bidaltzen zidaten niri, nik inprimatu, zuzenketak egin eta berririo edo eskaneatu eta bidali edo dena ordenagailuz idatzi eta e-mailez bidaltzen nien; azkenik, haiek inprimatu eta eramaten zioten. Ikusten duzunez, oztopoak nagusi.

Zuei dagokizuenenez, zer eskatzen duzue?

Orain gure helburua lan hau uztea da HABEk ardura hori hartu duelako, eta ondo bidean, hori lortuko dugu, gu presoan irakasle talde bezala desgertzea irakasle batzuek modu ofizialean lan hau hartu dutelako. Orain Zaballan, Basaurin eta Martutenen baditugu ikasle presoak; Iruñean momentuz ez. Esate baterako, Basaurin udal euskaltegia baldin badago, bertako irakasleek Basauriko kartzelara joan eta han eskolak ematea nahi genuke.

Euskal preso politikoekin hasi gara, baina gure asmoa da preso guztiei zabaltzea. Lehen-goan esan genuen bezala, kartzelak barnetegi bihurtzea. Nahi duenari aukera ematea.

Eta otsail-martxoan Gasteizko Legebiltzarrera joango zarete.

Bai, Giza Eskubideen Batzordea, lau urte hauetan isilpean egin dugun lan honen berri ematera. Ez da tontakeria, lau urteko lan hau ez da argitara eman eta bada momentua. Beraz, egin dugun lana kontatu eta geure eskaerak eta helburuak aurkeztu nahi ditugu.



Argazkiak: Endika PORTILLO | FOKU